

Joxe Bixente Etxabe Arregi

*Arrasate,
Gipuzkoa
(1922-2019)*

Aurkibidea

Biografia



Arrasateko San Andres auzoko Muzibargañekoa (Muxibar) baserrian jaio zen 1922an.

Arrasateko abade-etxean ibili zen eskolan 13 urte zituen arte, eta geroago maristetan eta eskola publikoan ibili zen. 13 urterekin gazta egiten hasi zen mendian; artzain ibili ohi zen. Soldadutzara joan aurretik etxea erre zitzaion. Donostian eta Orioko gainean egin zuen soldadutza; gerora, laguntzaile egin eta etxera bueltatu zen.

Zintak

ARR-052

- **Proiektua:** Deba Eskualdeko Ahotsak - Arrasate.
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa - Otegi, Aitziber
- **Data:** 2009-02-10
- **Iraupena:** 60 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Elortza, Kepa
- **Transkribatzailea(k):** Zuatzubizkar, Karmele

Pasarteak

1. Galdutako baserriak

- **Erref:** ARR-052/002
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 00:00:57. **Bukatu:** 00:03:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

<p>Hamabi baserri besterik ez dira geratzen San Andres auzoan, garai batekoen erdiak, gutxi gorabehera. Izenik izen azaltzen dizkigu Joxe Bixentek. Berak ez du inoiz lantegi batean lanik egin.</p>

Transkripzioa

-Hiru baserri, beratzi... Intxausti, hamar, Takolo hamaike... hamaike... ta geurie hamabi besterik ez dittuk egongo.

-Erdixak?

-Erdixek egongo dittuk.

-...gora[...], ezta?

-Badator gora?

-Bai.

-Ba gora badator, itxungi, itxungi hori. Holan, bale, geratuko dok / geratukok/. Bale, ondo jak. Ba oin geratuko dittuk horreitzeik, hamabi... hamabi, hamahiru? Holako bat. Hemen kendutekuek dittuk Boliñeteko errota... Gero hamen bezino bat be bajauan, gero hamen bezino bat be bajauan, Muxibar azpikue. Ta ha be, ha be jausi in zuan aldemenetik eta kendute jak. Beste baserri bat bajauan hamen, honen kontra.

-Bai, entzunda dakot.

-Ta hori bat. Boliñete hiru, Satorretxe lau, Isazelai zaz... lau-bost, Atxena xei, Axeri zazpi. Zazpi kenduta jazak. San Andres beste bat, San Andres baserri zahar bat, zortzi, kendute... zortzi egongo dittuk kendute. Ta egongo dittuk Otamendi bixek bi, Azue bixek lau... Etxaburu, Tellemendi zazpi... Gero beste bat hor kantera onduen be ha be eliminaute jak, baserri zahar bat. Zazpi. Gero bestaldien jazak beste bi basarri, beratzi. Ta geurie, hamar. Hamar besterik ez dok egongo e. Han Intxausti hor behien, ta Takolo. Hamabi. Hamabi behintzet bajazak. Ta hamar bat egongo dittuk, hamar-hamaike egongo dittuk kendute. Horreik Ulgo... Ulgorrek...

-Ta hamabi horreittan jendia bizi da?

-Bai, ondio bizi dok. Nik esan jittuaten baserrixetan jentia bizi dok ondio.

-Ta hainbeste fabrika in ondoren zu zeu be fabrikan ibilittakua izango zara ba?

-Ez, sekule be ez!
-Bapez.
-Sekule be ni ez naz egon fabriken. Fabrikarako okasiñue euki naixuan nik hamen, Ulgorrena ta, nire lagunak zittuan horko Ulgorreko fundadoriek eta, neuaz eskolan ibilitekuek, bat behintzet. Bat ez, bi be bai. Ta esan justien ta "Ba! Ni ez naixuek pasetan kalera!" Ta ez nintzuan fan. Juan banitz hoba!

2. Errepide berriak, gurdi berriak

- **Erref:** ARR-052/003
- **Iraupena:** 0:03:23. **Hasi:** 00:03:25. **Bukatu:** 00:06:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea

Laburpena:

Baserrian egunero lana egin behar da, baina norberak nahi duenean hartu dezake egun librea. Hamar bat ganadu buru izaten zituzten Muxibarren. Esnea banatu ondoren joaten zen mutikotan eskolara. Errepide zaharrean gurdiek ibiltzen ziren, baina brea jarri ziotenean gurdien burdinazko gurpilak debekatu zituzten. Harrezkero, astoa kendu eta zaldiak bultzatutako gomazko gurpildun gurdia erabili zuten.

Transkripzioa

-Holan izengo da, seguru. Bueno bizimodueee...
-Diferentia ezta?
-Diferentie dok e, fabrikeko bizimodue eta kanpokue diferentie dok. Hor alde haundixe jak, bizimoduen, alde haundixa, norberak gure dauenien libre be bai egoten dok eta... Domekan eta [katiuen...] baiñe, beste egun batzuk hartzen dittuk, norberak gure dauenien. Gu Bitorixara, ni Bitorixara asko fanda nak, Villefrankara be bai. Ibillitte asko nak. Baiñe hor egonez gero ezin fan. Ez dok /eztok/? Ta hola.
-Bai, domeketan igual lana ein biher baiña...
-Bai, domeketan lana seguru, basarrixen domeketan lana ein biher dana, hori ez jat /etxak/ dudarik. Lehen... lehenau moduen, barrez, behixek eta esnedunek eta eukitten zienien, orduen derrigor ein biher zuan lana. Noixien behin jarein normal, astegunien letxe esnie batzeko eta kalera erueteko ta. Esnie kalera eruten gaixuan guk, saltzeko. Ta upa danien...
-Zer zeukain ganau asko etxien?
-Ba eukitten gittuan lau-bost bat behi edo, hola. Bai hori, idixek be eukitten gittuan, ta hortik eta hemendiko ba hamar bat buru edo egoten zittuan. Ez zuan /etxuan/ baserri haundixe geuria e.
-Bueno baiña hamar buru ia...
-Bai, hamar bat buru egoten zittuan. Bai. Baiña akordetan nok e, esnie mutikue, eruen kalera ta, astuen, goixien esnie partiru, ta gero eskolara faten gitzuan. Eskolara. Ta gero eskolatik urteten gauenien barriro astue hartu ta etxera etorri, bazkaitteko. Ta hola.
-Ta astua nun isten zeбен, ba?
-Astua, han korta bat bagaukan guk, etxe zahar bat kalien. Ta han jauan korta bat, ta han egoten zuan astuoi, lotuta.
-Ta zueik jastetxia ta eukitten zeuein?
-E?

-Jaztetxia.
 -Ez, jaztetxerik ez.
 -Oñatin, Oñatin...
 -Jaztetxerik ez.
 -Oñatin mendiko baserrittarrak eukitten eben herrixan jaztetxia esaten xakon...
 -Ez, ez, ez.
 -... jaztetxia esaten xakon.
 -Etorri Txaber! Etorri hona! ... Jaztetxerik ez.
 -Ez.
 -Ez, han ez jauan /etxauan/ hamen jaztetxerik. Mondrauen ez jauan / etxauan/. Eskolara faten gitzuan ta kitto. Erueten zien erropekin, abarka zahar batzukin ta, fraka zahar...
 -Baiña zure aitta-amak domeketan mezetara faten zienian ta... Karo, hau ez da, hau ez da mendixa, ezta? Hau kale hau.
 -Hau kale hau, kale hau nibelien ta, hemen kamiñue beti egon dok. Kamiñue nik beti ezautu juat. Brea barik ezautute nak e, hau kamiñuau, brea barik. Brea bota barik ezautute nak kamiñuau.
 -Zu hor ibilliko ziñan idixakin, ezta? Eta burdixakin.
 -Bai, bai, burdixekin. Burdi korrientiekin ibiltten zuan jentie orduen kamiñuen. Gero brea bota zanien etorri zuan errubera burdiñezkuok ez ibiltteko zera ta... orduen e...
 -Gomazkuak?
 -Bolantiek bai, bolantiek ondio burdiñezko erruberak aukienak, txirinkak e, aruek! Aruek, horreik ibiltten zittuan ondio. Baiñe bestiok kendu jittuen. Ta gero, gomazko karruek-eta agertu zittuan, guk e... guk karrue bagaukan e, errubera hortaukie. Ta gero ifiñi gaixuan gomazkue. Gomazko erruberakin, kaballuaz. Esnie erueteko. Hola.
 -Ia zaldixekin? Astuekin ez?
 -Zaldixekin. Zaldixekin karrue ibili ta karruen andrie faten zan karruen. Plazara ta danera karruen. Karro elegantia, zerakin, gomazko erruberakin. Espeziala.
 -Bai, baiña zuk esan dozu mutikotan esnia eruen astuekin...
 -(Biloba) Aitita!
 -Ta eskolara fan gero!
 -Bai, baiña oin esan dozu zaldixekin karruan...
 -(Biloba) Aitita!
 -... karruan ia zaldixakin.
 -Gero zaldixekin. Gero zaldixe ifiñi gaixuan astue kendute! Ixilik egon e, Txaber! Ixilik egon! Ta hola.

3. Arrasaten Oreja hil zutenean

- **Erref:** ARR-052/004
- **Iraupena:** 0:02:48. **Hasi:** 00:06:48. **Bukatu:** 00:09:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika
- Politika » Jarrera politikoak » Sozialistak
- Politika » Jarrera politikoak » Errepublikanoak

Laburpena:

Gerra aurrean "iraultza" egon omen zen Arrasaten, Oreja eta beste bat, Zerrajerako ugazabak, hil zituztenean. Egun horretan, bera esnearekin

zihoala, esnea kendu eta etxera bidali zuten eskopetadun arrasatear gizon batzuk. 1934. urte inguruan izango zen, errepublika garaian.

Transkripzioa

- Da hola, gerra aurretik reboluziñue egon zuan Mundrauen. Oiñ beste kontu batzuk esango jittuau. Reboluziñuek urten juan Mundrauen.
- Gerra aurretik?
- Gerra aurretik, orduen bota jittuen bi gizon, bat Dagoberto da bestie Oreja, hor bota jittuen Mundrauen, Ferixelekuen.
- Zegatik?
- Ba, reboluziñue, zerien, Zerrajeran jabitzan eta Zerrajerako ugezabak zittuan horreik da, ba, ez zittuan arregletan itxurie eta reboluziñuek urten juan, da hartu eta etxetik eruen jittuen, eta han bota jittuen txarri-ferixa lekuen, Oreja da Dagoberto. Dagoberto gizon zuzena zuan, bañe Oreja esaten juen, ba, okerra zala esaten juen, etxakixat okerra ala zuzena ze izengo zan.
- Bañe bota, hil eiñ zittuen?
- Bota eiñ jittuen, hil eiñ jittuen. Orduen egunien, goxien, esniekin baninddoian, da hor Arrasate gañien, Arrasate badakik zeinddan?, Arrasate hau entradiu dok Arrasate, panaderixie jauan hor, hamen kruzien entraran, herrireko entraran, ez eskumetik, lelengo karreteratik, Santa Agedara hartzen dan hau...
- Hor zea dauena, Fagor Electronica ero dauena...
- Bai, hor ezkerrera hartu, da hori zuan kamiñue, lenau etxauan hori bestiori kamiñuori, gero einddekue dok, da hortik aurrera jauan kamiñue eta hortik, zeera, Arrasate gañera ta handik Erdiko Kalera sartzen zuan da karretera jenerala joian Zarugaldetik, hortik Kanpazarrera doien aldetik, hortik joian karretera jenerala, hortik pasetan zuan. Da ni, ba, astuekin baninddoian, dapa-dapa, da, zerien, Arrasate gañien “-Alto!”, eskopetakin-dde jasan, Txaparro eta akordetan nok zeintzuk zien, ezautu nittuan nik zeintzuk zien, da esnie hartu eta kendu justien, da marmittek hustu eta marmittek hutsik etxera, da esniek han hustu zittuan...
- Lurrea?
- Lurrea ez, han bertako bezinuei emon jutsien.
- Da, zu, mutikue, eta esnie hartu mutikueri...
- Ni, mutikuei, kendu justien esniok eta ni, mutikue, etxera. Orduko esniok kobrau barik geratu zittuan. Da orduentxe hil jittuen Oreja ta Dagoberto, orduentxe hil jittuen, Mundraueko Ferixelekuen, zerien, txarri-ferixa lekue jauan ganau-ferixie baño entraratxuau, da hantxe bota jittuen.
- Eta zeintzu zien horreik, osea, ze-ze grupo...?
- Ba horreik grupue zittuan ba, sozialista hortaiko jente gorrixue, jente gorrixue zittuan, jente rebelde-antza.
- Eta hori gerra aurreko kontue esaten dozu?
- Gerra aurrekue, hori zuan el año, el año treinta y cuatro izengo zuan?, oktubrien zuan.
- Osea, errepublikie euela orduen?
- Republikie euela, artien republikie jauan.

4. Gerra denboran, artzain

- **Erref:** ARR-052/005
- **Iraupena:** 0:03:14. **Hasi:** 00:09:36. **Bukatu:** 00:12:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

Oreja hil zutenean, beste batek ihes egin zuen, erre kara salto eginda. 14 urte zituen Joxe Bixentek gerra hasi zenean. Urtebete lehenago, mendira joan zen ardiekin, Deguriara, artzain. Gazta eskuz egiten zen orduan. Deguriara gerratik ihes egindako gizonak zeuden han; eta, haiek gobernatzeko, talo eta ardi-esnea ematen zien.

5. Menditik ardiekin alde egin behar

- **Erref:** ARR-052/006
- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 00:12:50. **Bukatu:** 00:15:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

Gerra indartuz joan zen, jendea armatuz eta trintxerak eginez. Artzainek menditik jaitsi behar izan zuten ardiekin. Mendiola auzoan egon zen Joxe Bixente hilabete batzuetan. Arabako gudako kanoikada hotsa entzuten zuen Joxe Bixentek menditik.

6. Erreketeekin

- **Erref:** ARR-052/007
- **Iraupena:** 0:03:21. **Hasi:** 00:15:55. **Bukatu:** 00:19:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

Ardiak Degurian utzi eta etxera zetorrela, erre kete konpainia batekin egin zuen topo Aretxabaleta inguruan. Ez zioten utzi etxera joaten, han gorriak zeudelako. Aretxabaletako osaba batek jatekoa eman zion, eta berriro Deguriara itzuli zen.

7. Bala artean Deguriara bidean

- **Erref:** ARR-052/008
- **Iraupena:** 0:03:38. **Hasi:** 00:19:16. **Bukatu:** 00:22:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

Bedoñatik zehar bilatu zuen bide seguruagoa etxera etortzeko. Arientza auzoan meza entzun ondoren, Santa Luzia bezpera batean trintxeran gorde behar izan zuen; eta, bala artean, Deguria aldera joan zen.

8. Ardiekin Araotzera

- **Erref:** ARR-052/009
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 00:22:54. **Bukatu:** 00:24:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » lhes egin beharra

Laburpena:

Ardiak ezin zituzten etxera ekarri, frontea Arrasaten zegoelako. Horregatik, Oñatiko Araotz auzoko Agerre baserrian egon zen Santa Agedak arte ardiekin. Bildotsak jaiotzen hasi zirenean itzuli zen etxera artaldearekin.

9. Lantegiek bukatu zuten morrontza

- **Erref:** ARR-052/011
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:27:05. **Bukatu:** 00:28:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:

Maisu batzuek jo egiten zituzten ikasleak, baina gerra aurreko eskolan ez zituzten euskaraz egiteagatik zigortzen. Sei urterekin hasi zen Joxe Bixente eskola publikoan. Eskola utzi eta artzain joan zen mendira. Lantegiak ugarituaz batera, morrontza bukatzen hasi zen.

10. Kooperatiba aurretiko industria Arrasaten

- **Erref:** ARR-052/012
- **Iraupena:** 0:00:35. **Hasi:** 00:28:55. **Bukatu:** 00:29:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:

Kooperatibak 60ko hamarkadan hasi ziren. Honen aurretik Arrasaten baziharduten Zerrajera, Elma eta Asan lantegiek, baita galdategi batzuk ere.

11. Ardiak eta txerriak

- **Erref:** ARR-052/014
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 00:29:54. **Bukatu:** 00:31:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

120 bat ardirekin hasi zen artzaintzan. Urte batzuetan 200dik gora ere izan ditu. Txerriak ere hazten zituen gazurarekin. Etxeko txerriak Joxe Bixentek berak hil izan ditu betik.

12. Baserria erre egin zitzaion

- **Erref:** ARR-052/016
- **Iraupena:** 0:03:06. **Hasi:** 00:33:24. **Bukatu:** 00:36:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak

Laburpena:

<p>Bera soldadutzara joan aurretxoan, Muxibar baserria erre zen. Hernia bategatik libratu zen, baina bi urte geroago mobilizatu egin zuten berriro.</p>

13. Goseak ostera bultzatu zuen jendea

- **Erref:** ARR-052/017
- **Iraupena:** 0:03:12. **Hasi:** 00:36:30. **Bukatu:** 00:39:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Gose handia izan zen gerra ostean. Jendeak bildotsak osten zizkieten artzainei. Estraperloan aritu zen Joxe Bixente. Arabatik garia ekartzen zuten Deguriara, gero herrian saltzeko. Errotak prezintatu zituztenean, eurena ez zuten erabat geratu.

14. Ogia etxean egiten zuten

- **Erref:** ARR-052/018
- **Iraupena:** 0:02:46. **Hasi:** 00:39:42. **Bukatu:** 00:42:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artoa
- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

<p>Artoa eta garia txandaka ereiten zituzten soroetan. Ogia etxean egiten zuten, labesuan. Ogi integrala ere egiten zuten, 'basailoria' esaten ziotena. Artoa, taloak eta morokila ere egiten zituzten.</p>

15. Bisigua merke omen zegoen

- **Erref:** ARR-052/019
- **Iraupena:** 0:02:44. **Hasi:** 00:42:28. **Bukatu:** 00:45:12

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak

Laburpena:

Garai hartan arraina 'harrika' egoten omen zen. Arrain-saltzailea bere orgatxoekin etxerik etxe ibiltzen zen. "Patrocinio de San Jose" egunean ospatzen dira auzoko jaiak. Harrobiko lanek erorarazi zuten auzoko ermitatxoa.

16. Artzaintzak etorkizunik ez

- **Erref:** ARR-052/021
- **Iraupena:** 0:02:52. **Hasi:** 00:48:43. **Bukatu:** 00:51:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Gerra ostean herriko plazako erromerietan, dantzako txakur handi bat ordaintzen zioten soinu-jotzaileari. Muxibar baserrian eman du Joxe Bixentek bere bizi guztia. Sei anai-arreba izan ziren, eta berak ere sei seme-alaba ditu. Seme batek jarraitzen du ardiekin, baina Joxe Bixentek ez du etorkizunik ikusten lehengo erako artzaintzan.

17. Ardiak jezten eta mozten

- **Erref:** ARR-052/022
- **Iraupena:** 0:03:35. **Hasi:** 00:51:35. **Bukatu:** 00:55:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Ardi jeztea oraindik eskuz egiten du, baina orain eserita, makurtu gabe. Ardi moztea ere etxekoek egiten jarraitzen dute, baina orain moztaile elektrikoarekin. Artileagatik lehen ondo ordaintzen zuten, baina gaur ezer ere ez. Lehen traperoak eramaten zuten artilea. Ardi mutur beltza izan dute beti Muxibarren.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-12-08

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com